

## EUSKALTZAINDIA'REN BATZAR-AGIRIAK

Donostia'n Aldundi-Jauregian, 1926'ko Garagaraiaren 25'an.

Bildu diran euskaltzañak abek dira: Azkue maipuru, Urkijo, Kanpion, Landeretxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Intza, Lakonbe eta Muxika eta Garitaoandia ordekoak.

I.—Bilbo'n noski, euskal-azterketak laxter omen dira: ta ango Udalak ala iragartzen digu-ta azterkari euskaltzain bat edo bi nai lituzke: oretarako izendatu dira: Azkue, euskaltzainburua ta Oleaga urgazlea.

II.—Yur'e'ko Ikastetxeak eskabide bat egin digu, liburu euskaldunak erosi ta ikasle artean banatzeko: auxe erabaki da: mutikoentzat diru pitin bat emango da: neskatilari ordea, *Sukalde-liburua*, Eskaltzaindiak argitaratua, emango zaizkiye.

III.—*Antzoki-itzak*. Azkue jaunak, arlo auxe gai artu-ta, txosten bat irakuri digu, esanik, ez dala nolainai izen beririk sortu bear. Arau batzuek dakarzki, auxe ondo moldatzeko. Mujika jaunak iardetsi diyo esanik: arau oyek eder izanañen, ez dirala gai ontan aitzakotzat artu bear, badabiltzalako lendikan izen beriyak eta abo askotan oituak, esate baterako, *antzoki* (teatro), *iruditegi* (escenario). Luxe-xamar onetaz itz egin ondoren, Euskaltzaindiak bere gogo-gogozko abek aukeratu ditu: *Teatro* esateko: antzoki: *escena* = ageñaldi: *escenario* = agertoki: *cuadro* = atala: *acto* = ekitaldi: *telón* = oyal: *telón de fondo*

= barneoyal: *entrada* = txartela: *butaca* = besaulki: *palco-platea* = begela edo bezizku: *palco principal* = gela-nagusi edo zizku nagusi: *palco-proscenio* = aurre-gela edo aurre-zizku: *anfiteatro* = inguroki: *delantera de anfiteatro* = inguroki-aurre: *galería* = agizko: *entrada de galería* = agizko-sarbide: *delantera de galería* = agizko-aurre: *actores* = antzezlarriak: *apuntador* = ixilesale: *traspunte* = oroitzale: *programa* = egitarau: *reparto* = banaketa: *representación (fiesta)* = antzoki jai: *representación (acto)* = antzekunde: *representación (objeto)* = antzekizun: *obra dramática* = antzerki: *obra cómica* = iri-antzerki, antzerki alai: *ópera-zarzuela* = eres-antzerki: *monólogo* = bakañizketa: *diálogo* alkañizketa.

Euskaltzaindiak itz abek aukeratu ditu ta abek erabiltzeko arén egiten diye antzerki-egile ta antzezleri guziei.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta, otoitzez amaitu da batzañaldi au.

---

## Donostia'n Aldundi-Jauregian, 1926'ko Garagañila'ren 26'an.

Aurreko batzañaldiko euskaltzain ta ordekoak eta Ormaetxea jauna datoz. Otoitzez asi da batzañaldia.

I.—Ormaetxea jaunak txosten eder bat irakuri digu, *acento euskérico*, gai artu-ta.

II.—Lakonbe jaunak beste lan bat irakuri du ta auxe da beronen gaya: *Subfijos románicos del euskera*. Lan au Schuchardt jaunarena da ta atzizki abek aita-tzen ditu: *arius, ario, airu, aria, era, kera, eri, kerika, ke, eta, unde, kunde, asun, tasun*.

III.—Eguskitza jaunak diyo, asñ bear dala *Diccio-*